

XXXII. ERRENTERIA HIRIA IPUIN LEHIAKETA 2012

25 urte baina gazteagoen saria

ITZALAK

Egilea, Karmele Mitxelena

Gaur ere jolaserako gogoz dator itsasoa. Pixkanaka hurbiltzen ari da, mareagoran, nire oinak disimuloan harrapatu nahian. Gero eta luzeagoak dira lehertutako olatuen itzalak hondarretan, gero eta hurbilago gaude. Nik ere badut jolaserako gogoia, eta ez naiz nire lekutik mugitu.

Oinetan baino gehiago sentitu dut gorputzean lehen olatuaren laztana, hotzikara batek abisatu dit itsasoa nire behatzetara ailegatu berri dela. Harrapatu nau. Kilimak egin dizkit, kilimak oinetan eta sabelean, urduritu egiten bainau, liluratu. Begiak itxi ditut, begiak itxita gehiago sentituko balitz bezala, eta laztan hotzetara jolastu dugu.

Itsasertzean geratzen naiz itsasoaren zain, oinak hondar hezetan itsatsita. Behin baino gehiagotan desiatu izan dut itsasgora hasi eta inoiz ez gelditzea, ura belaunetaraino, gerriraino, leporaino sentitzea. Baina itsasoa ez denean hurbiltzen norberak egin behar du itsasorainoko bidea, nire haurra hil nuenean nik egin nuen bezala. Itsasoak bere olatuzko besoekin hondarretara bultzatzen ninduen behin eta berriro. Ez ninduen gertu nahi, ez ninduen berekin nahi. Ez orduan eta ez gero. Nire burua hiltzeko ahaleginak pilatzen joan naiz geroztik olatuak hiltzen diren toki honetan, hondar aleen gisara pilatutako pauso formako ahaleginak, estaliko dituen itsasgoraren zain.

Datorren hilabeteen hiru urte beteko dira. Ez dut egutegirik behar gogoratzeko, nire itzal faltsuari begiratuta nahikoa dut. Soineko beltzaz konbinatutako media berdeekin jolasean aritu nintzen itxarongelan, belar kolorea hatzekin tira eta askatuz, tira eta askatuz. Noizbehinka erlojuari begiratzen nion, sendagilearen atzerapena minutu-orratzaren errua bailitzan. Hankak gurutzatu nituen, eskuina

ezkerraren gainean. Baita besoak ere, ezkerre eskuinaren gainean. Hankak berriro, alderantziz. Eta hankak beste behin, alderantziz beste behin. Besoak des-gurutzatu eta erlojuari zortzigarren aldiz begiratzear nengoela emakume betaurrekodunak nire izena esan zuen.

Kostata ikus zitekeen kontsultako mahaiaren egur kolorea. Paper pilak han eta hemen, txostenak, paperez betetako karpetak, txosten lodiak, aspaldi hustu gabeko hautsontzi bat, paperak desordenatuta eta klipak desordenatuago paper artean galduta, paperak gratututa, eta paper gehiago, eta gehiago, eta gehiago. Horma horituei tabako usaina zerien, baita sendagilearen hortzei ere. Hizketan hasi zen arte ez nuen ulertu bere aurpegi serioegia. Inoiz sentitu ez dudana izua sentitu nuen bere ezpainetan minbizia hitza irakurri nuenean. Hortik aurrera ez dakit zer esan zuen, zer egin. Nik une batez izateari utzi niola soilik dakit, bizirik hil nintzela, edo halako zerbañ. Ez nengoen han. Bi astetara hasi ginen kimioterapia saioekin, ebakuntza saihesteko modu bakarra zen tratamenduarekin lehenbailehen hastea. Saiatu ginen, saiatu nintzen, ziren, baina bi hilabetetara kirofanoko ohean etzanda nengoen ebakuntza hasteko zain.

Gauzak gaizki atera behar dutenean gaizki ateratzen dira, ez dago patuaren kontrako botikarik. Lagun zaharrak egin gara ozeano urdin hau eta ni. Ozeano madarikatu hau, indartsu beti, osorik beti. Egunero etortzen nintzen ospitaletik bueltan kimioterapiak lapurtutako indarrak usaintzera, ikustera, entzutera, hurrengo sesioan ere zer lapurtua izan zezan. Zutik ipintzeko gauza ez nintzenetan, sukaldeko leihotik zelatatzen nuen itsasoa, urrutitik, begi jeloskorrekin sarri. Eta hemen zegoen beti, nire zain, ni itsasertzean bere zain egoten naizen moduan.

Kimioterapiarekin hasi orduko galdu nuen haurra. Hiru hilabete terdiko nengoen bularreko minbizi hura diagnostikatu zidatenean, hamabost asteko. Paper artean nire txostena aurkitzen saiatzen zen bitartean, sendagileak ez zela ezinezkoa errepikatzen zidan, bazeudela kasuak, bazeudela

haurdunaldia aurrera atera zuten emakume indartsuak. Eta berak nire txostena aurkitzea lortu bazuen, zergatik ez? Nire burua konbentzitzen saiatu nintzen, izango zela sinetsi ere egin nuen une batez, itsasertzeko paseo hartan kuleroak heze sumatu nituen arte. Beldurtuta iritsi nintzen etxera, tripako minez, eta komunean giltzapetu nintzen. Galtzak eta kuleroak jaitsi eta odola. Egun horretan erabaki nuen hil egin behar nuela, bizitzea merezi ez nuelako batez ere.

Hiltzaile bat nintzen, ama hiltzaile bat, ez nuen besterik ikusten ispiluaren aurrean. Ezin nion Galderrri begietara begiratu, nire isla hiltzailea baino ez bainuen topatzen bere begi-ninietan. Saiatu ginenez gogorik gabe maitatzen, interesik gabe, arrazoirik gabe. Elkarri ezertarako behar ez genuen denbora bat ematea erabaki genuen, bederatzi urte lehenago arkitektura fakultateko kafetegian hasi zen maitasun istorioa bat-batean amaitzea gogorregia iruditzen zitzaigulako edo. Denbora bat ematea da harreman bat uzteko modurik sutilena. Sukaldeko koadrodun gortinaren bazterrean gelditu nintzen bakarrik, Galdarren laztan goxoen faltan, itsasoaren laztan hotzekin konformatuz.

Urak txorkatilak ito dizkit, belaunetara bidean da dagoeneko. Gero eta indar handiagoarekin bultzatzen nau, lurrera bota nahi banindu bezala. Lurrera bota eta nire itzal beltza harrapatu duen moduan harrapatu ni ere. Itzal gezurtia, aitak beti esan izan dit egia ez esatea gezurra esatea dela. Pauso bat atzera eman dut, itzala uretatik erreskatatu eta olatuen zipriztinak belaunetara tolestutako galtzetara ez iristeko.

Kirofanoko argien antza du eguzkiak, itsutu egiten du. Ebakuntza eguneko angustia oroitarazten dit, inpotentzia, begiak ez irekitzeko gogoia. Ez zen erraza izan ohetik altxa eta ispiluaren aurrean jartzea. Ezin izan nion negarrari eutsi ospitaleko kamisioa erantzitakoan, ezker bularra kendu zidaten hutsune bat ipintzeko haren partez. Inoiz ez didate bihotza kendu, baino antzeko zerbait izan behar duela imaginatzen dut. Emakume identitatea lapurtu zidatela sentitzen nuen, ez nintzela hain emakumea. Etxeko ispilu denak

estali nituen, leihoak gortinaz tapatu, sukaldekoa izan ezik. Baina eguzkiak irteten zen bakoitzean nire irudia marrazten zuen asfaltoan, belarretan, hormetan, hondarretan. Bularretakoaren ezker aldeko hutsunea bete eta itzala engainatzea lortu nuen arte. Ordutik nik dakit egia, nirea bakarrik da sekretua, sekretuak. Eta itzalak gezurrak baino ez ditu islatzen, nireak ez diren formak, nireak ez diren itzalak.

Hareazko gaztelua bezain hauskorra da bizitza. Ohartzerako olatu bat gainera etorri eta lurrean arrastaka zaude, inoiz altxa ezingo duzula sinetsita. Erortzeak min ematen baitu, baina mina bizirik jarraitzen duzunaren seinale da, eta bizi zaren artean bizirik zaude, inoiz bizitzak kontrakoa sinestarazi badizu ere. Batzuetan, ustekabeen mareak behera egiten du, eta lehorrean abandonatzen zaitu, bustita, zikinduta, nekatuta, baina bizirik.

Itsasoaren itzaletatik urundu eta lehorrean eseri naiz. Belaunak tolestuta, hondarretan ito ditut oin bustiak, lehorraren epelean. Erlojuari zer ordu den galdetu eta erantzunarekin gustora, zerumugarantz zuzendu dut begirada, begietan ilunabar gorri baten argazkia itsatsita. Bizitza osoak emango nituzke zain horrela.

Eskuarekin hondar aleak zirikatu ditut, egiten eta desegiten aritu naiz leuntasunarekin jolasean. Oharkabeen, aleak pilatu eta hareazko tontorra sortu dut, nire inkoszienteak behin ostu zidaten forma berreskuratu nahi balu bezala. Esku koszienteak ezin izan dio tentazioari eutsi, eta berehala egin du harrapatzeko keinua. Hatz artean desegin zait ezker bularra.

Badator Galder, nahastezinak dira ile kizkur eta ibilera baldar hori. Urrutitik besoa altxa eta irrifartsu agurtu nau, aspaldi ikusi ez direnen gisan. Goizean egon gara azkenekoz, baina beretzat beti igaro ohi da denbora gehiegi agurtu garen azken alditik; atsegin dut hori. Ezker eskuan zapatak hartu eta zutitu egin naiz, eguzki nekatuak hondarretan marraztu duen nire itzal ahulari begirik kendu gabe. Gaur ere ez du egia osoa kontatzen. Eskuin eskua sabelera eraman eta barruan handitzen ari den sekretuari

aita badatorrela esan diot hitzik gabe. Laster handituko zait sabela, laster marraztuko gaitu eguzkiak bioi.

Bitartean bi izango gara, itzal bakarrean, bi.

EZIZENA: Sekretua